

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abuztuaren 18a

Egunkaria

## Tximistak

Tximista, oinaztura ('ineztura' erraten diote batzuek), energia handiko deskarga elektriko argitsua da, elektrizitatez kargaturiko hodei batetik lurrerakoa nahiz hodei batetik besterakoa. Lurtar arruntari bost axola zaio nondik nora doan tximista; zeruko ikuskizun basatia du gustuko. NUPeko Monica Aguado irakasleak tximisten inguruan egin du tesia, baita ondorio bitxiak atera ere. Konparazione, Erriberan mendialdean baino tximista gehiago erortzen direla. Baina gehiago ere badago hodeietako adar zorrotzen gibelean.



# Lekunberri • Jende berria ezagutzeko asmoz

Astebete eman dute hamar neska Erresuma Batuan

**Lekunberri, Baraibar, Azpirotz eta Arruizko hamar neska astebete igaro dute Erresuma Batuan, ingelesa hobetzeko eta hango jendea ezagutzeko. Droga-menpekotasunen prebentzio programako teknikariena izan da ekimena.**



Erresuma Batuan astebete eman dute Lekunberri, Baraibar, Azpirotz eta Arruizko hamar neska, prebentzio programak antolatuta. • ELI BELAUNTZARAN

**J**OSUNE ZABALA PREBENTZIO programako teknikariak dioenez, horrelako bidaia bat antolatzeak lan dezente ematen du, baina azkenean, oso interesgarria izateaz gain, baliagarria ere izan da neska horientzat, beraiek ere lan handia egin dutelako dena prestatzen. Uste zuten baino ordu gehiago sartu behar izan dituzte dena antolatzen, baina elkarlanean aritu dira eta denak gustura atera dira. Oso esperientzia ona izan da, NAFARKARIARI adierazi diotenez.

Rotherham, Sheffield, Kiverton eta Wakefield inguruetan ibili dira. Han, zazpi egune-

tan, herriak eta bisitatu ohi diren tokiak ikusteaz gain, hango kultura ezagutzeko parada izan dute, baita aisialdirako programak eta tailerrak ezagutzeko aukera ere. Hainbat ekintza antolatu dizkiete hango lagunek eta astebetean gauza dezente egin omen dituzte, eta, konturatzerako, astea joan zaie. Taldeko kideek aitortu dutenez, azkarregi joan zaie denbora. Dirudienez, triste jarri ziren etorri behar izan zutenean, eta orain hangoak noiz etorriko zain daude. Oso harreman polita sortu da hangoen eta hemen-

goen artean, nahiz eta hasieran kosta egin zitzaizen hemen go neskei hango ohituretara egitea. Hangoak «oso hotzak» direla diote, baina, behin ezagutuz gero, dena ongi joan zen.

Erresuma Batutik datorren taldea gaur iritsiko da Bilboko aireportura. Lurreratu orduko jasoko dute ongietorria. Nafarroara bueltatu zirenez geroztik, hamar neska horiek bisitarien lo egiteko lekua (Lekunberriko eskola) txukun uzten eta egin behar dituzten ekintzak eta behar dituzten gauza guztiak prestatzen ari-

tu dira. Iruñean, besteak beste, Gazteriaren Etxera eramane dituzte, hemengo aisialdirako tailerrak ezagutzeko.

Joan eta etorriko bidaia hauek esperientziak trukatzeari lortu nahi dute, baita hizkuntza, herri, ohitura eta kultura bat ezagutzeko aukera ematea ere. Nafarroako Gobernuak eta Larraun eta Lekunberriko udalen diru laguntzekin moldatu dira eta, neska horien familietan hartuko dute aterpea Erresuma Batutik etorritakoak.

→ Eli Belauntzarán

Berriozar

**Argazki, komiki eta literatura lehiaketak**

BERRIOZARKO UDALEKO Gazte batzordeak, Kultur Etxeak, Emakume eta Euskara batzordeak lau lehiaketa antolatu dituzte, «gazteen sormen artistikoa bultzatzearren».

Argazki lehiaketan 15 eta 30 urte bitartekoek har dezakete parte, zuri-beltzeko edo koloreetako argazkiak aurkeztuz. Gaia librea da. Atal bakoitzeko irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu, eta abenduan erakusketa egiteko aukera izanen du Berriozarren.

Bi literatura lehiaketa antolatu dituzte, bata 15 eta 30 urte bitartekoendako eta bertzea 30 urtetik goitikoendako. Bietan gaia librea da, eta euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu daitezke lanak.

Azkenik, komiki lehiaketa antolatu da. Gaia librea da, 15 eta 30 urte bitartekoek har dezakete parte; lanak zuri-beltzean izanen dira eta gehienez DIN-A-3 neurriko lau orrikoak izanen dira. Irabazleek, euskara eta gaztelania sailetan, 50.000 pezeta poltsikoratuko dituzte. Gainera, aurtun lehenbizikoz, sari berezia emanen zaio komiki ez-sexistari. Sari horren helburua «generoaren arabera este-reotipoak aldatu beharraz ohartaraztea» da.

Lau lehiaketetan lanak aurkezteko epea irailaren 29an bukatuko da.

→ Daniel Urrutia

ziutatea

ARITZ AGIRRE



**U**sadiozko izakiak ei gara gizakiok. Inguruari so egitea besterik ez dut nire isolamenduaz ohartzeko. Hiri osoa hutsik dago, San Ferminen agurrak madarikazioa ekarri duela dirudi. Non daude karrikak betetzen zituzten zapi gorridun mozkortiak? Gauetik goizera desagertu da milaka herri-tar, eta indio eta bakeroen filmetako hiri fantasma bilakatu da Iruñea: dendak itxita daude, auzoan inor ez, bakardadez beteta ostatuak... udaletxe atzean ere, aparkatzeko leku andana, OTA putari jaramonik egin gabe. Etxeko adreiluaren arteko ziegatik bertatik soma dezaket karriketako ezereza. Hiri, hondartza ondoko kanpinen neguan duten giroa bezain bakarti.

Izan ere, usadioaren gatibu diren izakiek Mediterraneo aldean jartzen dute udako behin-behineko gotorlekua, Cro-Magnon garaian ikasitakoari jarraiki. Urrezko kostaldera artio ailegatu zaizkigu harma-

## Ezereza

riko kate foralak. Hantxe, euskal giro tropikalena, San Fermin osteko zita nagusia, apartamendu eta kanpinen artean. Hemendik Ati-en teknoa diskoteketan, Skalariak taldearen zuzeneko kontzertuak, eta hondartzan, berriz, Fermin Muguruzaren reggaea. Benidormeko, Salouko eta Platja d'Aroko hondartzetan, bizilagun-ezagunek «aupa» eta «agur» esaten diote elkarri topo egiten dutenean. Horratx, euskaraz aritu zein euskal kantuak abesteko parada.

Horrenbestez, hiru motatakoak dira abuztuko gizakiak: lehenik, Kataluniako lurak karabana, jota eta kalimotxo konkistatzen dituztenak. Bestetik, kalimotxo horiek bi txosna eta berbenaz osaturiko eremuetan askatzen dituztenak; herri herriko besten egutegiarekin agenda lepoa beteta dutenak. Azkenik, ni neu, etxe ondoko pisizako belardian etzanda, hi-

riaren zama ezin bizkar ginetik kendu. Kalimotxoahiko taberna beroan edo etxeko balkoian agortzen dugunok —Don Simona+ Coke—. Ordu eta egunen joan-etorria zenbatzen dihardugunok, alde egindakoak noiz helduko esperoan.

Nire txoko xume honetatik, espaloien kaiolatik dei egiten dizuet, otoi, edonon izanik ere, itzul zaitezten. Galduta, ahantzia, hutsik, ezerezean duzuelako hiri, King Afrikaren erritmora gerria mugitzen ari zaren bitartean. Horrela ezin da zutaberi idatzi, hondartzako txiringitoa zabalik eta gainontzekoek itxita jarraitzen badute. Arima garbitzen duten Kostaldeko terraza batean eseri nahiko nuke eta gorputza eguzki pean kiskali. Sarri esana baita hondartza baino ez zaigula hirian falta, sanferminetako betekada asetzeko. Haatik, orain berriz bueltan. Akitu zaizue epea.



Lizarra •

# Paris eta Belle Epoque

Garai eta hiri horretan murgildu ahal gara Xabier Gose artistaren lanaren bidez

**Gustavo de Maeztu museoak gaur arratsean zabalduko du Xabier Gose artista katalanaren lana biltzen duen erakusketa. Bertan ilustrazioaren eta art deco estiloaren aitzindariaren margolanak ikus daitezke, eta Parisko Belle Epoque garaian murgildu.**

**L**IZARRAKO GUSTAVO DE Maeztu museoak egitarau oparo eta mamitsuarekin jarraitzen du. Aurtan, Nicanor Piñole, Armando Ruiz, Andres Santamaria, Carlos Ziriza eta bertze artista anitzen lanak ikusi ahal izan dira. Oraingoan Xabier Gose artista katalanaren lanak bildu ditu, eta gaur arratsean zabalduko da erakusketa. Bertara joaten denak denboran atzera eginen du, eta mende hasierako Parisko gau magikoak sentitu ahal izanen ditu. Modako kafe batean eseri eta musika liluragarri bat entzunez Belle Epoquean bete-beterik sartuko gara. Izan ere, Xabier Gose garai hartako kolore, gau, pertsona eta egoerek erabat erakarri zuten, eta maitasun hori maitasuki islatu zuen bere margolanetan. Dantzan ari den bikotea, irribarre bihurria

«Emakumea, dudarik gabe, argi bat da, begirada bat, zoriontasunerako gonbidapena, batzuetan hitz bat, baina batez ere harmonia orokorra da emakumea, eta ez soilik bere itxuran edo bere gorputzaren mugimenduetan, baita bere gorputza biltzen duten muselina, gasa eta ehunezko hodeiak ere, horiek baitira bere dibinitatearen ikur eta idulki».

• CHARLES BAUDELAIRE



hasieran Parisen ohikoak ziren irudiak.

Xabier Gose (1876-1915). Belle Epoqueko Paris da erakusketa monografiko honen izenburua. Erakusketak artistaren ibilbide artistikoa ezagutzeko aukera eskaintzen du. Hala, haren aurreneko lanak ikus daitezke; XIX. mendearen bukeran Bartzelonan margotutakoak, alegia, Horiek errealistak eta deskriptiboak dira batzuetan, eta bertzetan modernismora hurbiltzen dira. Jarraian, 1900 eta 1915 urteen bitartean Parisen margotutako obrak ikus daitezke. Garai hori emankorra izan zen oso artistarentzat; Parisek bultzada handia eman zion, eta han aurkitu zituen bere lanaren oinarriak: sintesi ahalmena, dotorezia, japoniar konposaketaren eragina eta estilizazioa. Xabier Gose erreferentzia izanen zen mende honetako ilustratzaile askorentzat, eta bera hil eta hamar urte geroago sortu zen art deco mugimenduaren aitzindaria dela esan daiteke dudarik gabe. Erakusketa irailaren 24a arte egonen da zabalik.

→ Kristina Berasain



**herri aldizkariak**  
Asier Legarda-ereño

## Vietnamen eraildako Senpereko misiolariaren kontuak

Aste honetan **Iparaldeko Herria** aste-kari euskaldunak Théophile Bonnet misiolariaren berri ematen digu, besteak beste. «Théophile Bonnet 1926an sortu zen Senpere Ibarrunen», Joseph Camino artikulua idazleak dioenez, eta «Hazparneko eta Uztaritxeko ikastegietan» ibili ostean, «Pariseko M.E.P. misionest etxerat jo zuen. Salatzzen zaukun ardura, diskretuki haatik, bere baitan zaukan misionest joaiteko kar saindua». 1950ean apezte eta «1951an Vietnamerat igorria izan zen, Kontum deitu eskualderat». Caminok

gogoratzen digunez, «Leku heietako misionesten bizia lanjerosa zen duela 50 urte marxisten gatik», baina «hale-re Teok jainkoaren Berri Ona bere kar eta fede guziaz predikatzen zuen haur, gazte eta jende helduer, bazakielarik haatik bilha jiten ahal ziola Jauna gutienik ustea». 1960an etxera bisitaxo bat egitera itzuli ostean, «gibelera-tekoan leku berri batetarat igorria izan zen. Hango misionesta komuniz-tek hil berria zuten, Vietnamtarra zelarrik. Gainerat eliza eta apeztxea errekat atzeman zituen Teok. Konkola

zuen herri horrek izena». Eta Konkola izeneko herri hartan kristauen bilgunea zatekeena berreraikitzen eman zituen Teok hurrengo hilabeteak, eta bere lanak fruitu onak eman zituen. Baina «vietmin soldadoek gezur berri bat asmatua zuten: Teo ez zela apezta, Amerikanoen espiona zela». Eta, hala, senperetarraren amaiera etorri zen: «Egun batez, meza herri batean emanik gibelerat heldu zelarik, erreka ttipi bat erdi lasterka iragaitean, hiru tiro entzuten dira. teo erortzen da hila. 1961ko abendoaren 13a zen».



**urdairen mintzoa**

Xabier Larraburu

## Txantreako Itziar hura

Ordenagailuaren bitartez konektatu eta luzez egoten ahal zara hizketan Interneten. Horretarako IRC-ko kanalak dituzu. Chat hitzarekin ezagutzen direnak. Kanalak topaguneak dira. Gela modukoak. Aurretik # zeinua dute. Kanalen zerrenda eskatuz gero, zerrenda luzea agertuko zaizu: #tabakoa, #amodioa, #futbola eta abar. IRC-ko zerbitzari bakoitzak bere kanalak ditu. Zerbitzariak asko dira munduan, eta batetik bestera saltoka ere ibil daitezke. Horrelako kanaletan jende asko egoten da, bakoitza bere ezizenarekin erregistratua. Ezizenena mundu bat da. Ezizen baten atzetik dagoena ezin jakin. Isabel baten atzetik pikoletto bibotetudun bat egon daiteke, eta Manolo ezizenaren atzean hemezortzi urteko neskatila bat, edo bi, edo hiru, baldin eta merendatzeko orduan adiskidearen etxera IRC-ren bitartez barre batzuk botatzera joan badira. Behin, horrelako merendu batean, bost lagun bildu ginen Txantrean. IRC-ko zerbitzari batetik bestera ibili ginen saltoka, eta azkenean Hego Amerikako kanaletan aritu ginen hizketan. Gure ezizen euskaldunari erreparatzu (Itziar zen), gurekin Koldo bat hasi zen hizketan. Handik ordubetera jakin genuen Iruñean bizi zela hura ere. Handik ordubete eta hamabost minutura konturatu ginen gu geunden etxearen ondok ari zela, kale berean, bi etxe harantzago. Leihora hurbildu nintzen. Sentipen arraroa zen hura: Txantreako etxe haietan, orduan gauraren lehen lerroan leiho argi horiz pizten hari ziren haietan, Hego Amerikako ordenagailu baten bitartez ezagutu nuen Koldo bat bizi zen. Berak ni Itziar moduan ezagutzen ninduen: neska gazte, ilehoria, arkeologoa, footingzalea, saskibaloian ere aritua... Ducados bat piztu nuen. Nire atzetik adiskideen irriak entzuten nituen: «Esaiozu plazara jaisteko! Horrela gizajo horren aurpegia ikusiko dugul!» Ezetz erabaki genuen, ezin genuela horrelakorik egin, demasa zela hori guztia. Koldo agurtu eta bertan utzi genuen. Ni Koldoren itxura ezagutzeko irrikan gelditu nintzen. Leihoan paratua, Koldo hura irudikatu nuen plaza erdian: agian amona bat bere iloba gaztearekin, edo hiru neska irribarretsu, edo benetako Koldo bat plaza erdian, mundu mundialeko tamaina izango zuen isolamenduarekin bat egirik.



# Tximistak barra-barra

Monica Aguado NUPEko irakasleak Nafarroan erortzen diren tximistak aztertu ditu bere doktore tesian

Tximista energia handiko deskarga elektriko argitsua da, elektrizitatez kargaturiko hodei batetik lurrerakoa nahiz hodei batetik besterakoa. Gehienok naturaren adierazpenen edertasunari erreparatzen diogu soilik, alderdi zientifikoa kontuan izan gabe. Monica Aguado NUPEko irakasleak tximisten ingurukoa egin du tesia. Zenbatu eta aztertu egin ditu, baita ondorio bitxiak atera ere.

iragan ostiralean, errate baterako, ekaitza urruntzen ari zelarik, Leitzako Arkiskil auzoko baserri baten alor erdian dagoen elektrizitate zutoinean jo zuen tximista batek. Talkarekin, zutoinak su hartu zuen. Baserriko bi telefonoak barnetik erre ziren eta herri guziko argia joan egin zen.

Elektrizitate sarean sortzen diren matxuren %80 tximisten deskargetik sortzen ditu. Lehen konpainia elektrikoek faktore aleatorioztat jotzen zuten tximista. Orain tximistak ongi aztertu behar direla uste dute, babes sistema egokiak diseinatzea helburu.

Monica Aguado NUPEko irakasleak doktoretza tesia tximisten inguruan egin du eta, horretarako, 1992tik 1997ra Nafarroan erori diren tximistak zenbatu eta aztertu ditu. Orotara, hodeia-lurra motako 130.000 bat tximista inpaktu edo oinaztarri izan dira. Hodeitik lurrera doazen tximistez gain, badira hodeiatik hodeiara doazenak ere. Hodeia-hodeia motako tximista hauek soilik abiatio esparruan hartzen ziren kontuan orain arte. Baina frogatu ahal izan da lurreko aparatuek elektronikoetan ere badutela eraginik. Dena dela, Nafarroan hodeia-hodeia tximistak gu-

Tximista sortzeko, lurretik hodeiara doan goranzko korrante elektrikoak behar da. Hau da, lur azalak badu zerikusirik tximista sortzeko orduan. Lur azalaren erresistibitatearen arabera, tximista handiagoa edo txikiagoa izan da.

EGUNKARIA

Lehen, ekaitze kopuruaren arabera zenbatzen ziren tximistak. Aguado tesiak frogatu du Nafarroan bederatzi tximista gehien ez izaten ekaitz gehien izaten diren tokietan.

Nafarroan oinaztarriak dira ohikoena. 1992tik 1997ra 130.000 tximista inguruk jo zuten Nafarroan.

EGUNKARIA

ti dira. Hodeia-lurra motakoak dira ohikoena. Eta hauek aztertu ditu Aguadok bere tesian.

## Erriberan, tximista gehiago

Lehen, 1992an tximistak zenbatzeko detekzio sistema berriak indarrean jarri ziren arte, tximista kopurua ekaitza kopuruaren arabera kalkulatzen zen. Ekaitza bezala hartzen

zen trumoiak entzuten deneko eguna, eta horren arabera lortzen zen tximista kopurua. «Modu erraza zen», erran du Aguadok. «Baina ikusi dugu horrela ez dela posible tximista kopurua modu fidagarrian kalkulatzea. Hurbilketa da, eta besterik ez badago ongi dago. Baina tesian ondorioztatu ahal izan dugu ekaitzen gehiengoa dagoen tokietan ez daudela tximista gehienak eta alderantziz».

Bost urtetan zehar harturiko datuak aztertu eta gero Nafarroako mapa hiru zatitan banaturik agertu zitzaion klarki Aguadori. Iparraldean, Pirinioetatik hurbil, tximista inpaktuak ez dira 1 baliara ailegatzen kilometro koadro erte bakoitzeko. Aldiz, hegoaldean, Erriberan, 2,2 tximistek egiten dute talka urtero kilometro koadro batean. Usteak erdi ustel, tximisten gehiengoa alde menditsuetan izaten dela uste baikenuen askok.

«Hasiera batean logikoa da pentsatzea eremu altuenetan tximista gehiago dagoela», azaldu du Aguado irakasleak. «Tximista sortzeko lurretik hodeiara dihoan goranzko korrontea behar da ere. Toki altuetatik bide hori errazago sortzen da. Horregatik antenak toki garaietan paratzen dira. Baina aztertu dugunean oinaztarrien kopurua eta altueraren arteko harremana ikusi dugu Nafarroan harreman hori konstantea dela, hau da, altuera ez dela faktore erabakio-

## Monica Aguado

NUPEKO IRAKASLEA

# «Tximistorratzak gure tximisten ezaugarrietara egokitu behar dira»



MIKEL SAIZ

Industria ingeniarietan doktorea da Monica Aguado. Duela 29 urte jaio zen, Zaragozan, eta hantxe lizentziatu zen. Egun NUPEko irakaslea da. Aguadok bere tesian tximistak aztertu ditu, ingeniariak elektrikoaren ikuspegitik.

## ■ Zertan datza zure tesia, zer frogatu nahi zenuen?

Bi helburu zituen tesiak. Lehenbizi, Nafarroan tximistak dituen ezaugarriak ezagutu nahi genituen, sistema elektrikoaren babesean aplikatzeko. Nik ingeniariak elektrikoaren ikuspegitik estudiatu ditut tximistak, baina badira beste modu anitz tximista aztertzeko. Tximistak nolakoak ziren jakin nahi genuen. Ez da nahikoa jakitea alderdi batean bi edo hiru tximista erortzen direla; tximista horiek nolakoak diren jakin behar dugu. Tximistaren parametro ezberdinen artean zer-nolako harremana dagoen jakitea zen bigarren helburua. Eta bazegoen azken helburu bat, nahiz eta tesian agerikoa ez izan: babes sistemak hobetzea. Tximistak hobekiago ezagutzen

ditugun heinean, hobekiago jakinen dugu zeren menpean dauden, eta are hobekiago diseinatuko ditugu gure defentsa sistemak.

## ■ Pluralean ari zara une oro.

Beno, tesia nirela da, baina Blas Hermoso irakaslearen laguntza jaso dut; berak zuzendu dit tesia.

## ■ Noiz hasi zinen tesia egiten?

1995ean hasi nintzen. Iberdrola konpainia elektrikoak 1992tik 1997ra hartu zituen datuak erabili ditut. Eskerrak eman behar zaizkio, datuak hartzeko aparatuak oso garestiak baitira.

## ■ Tesian diozu Nafarroan erortzen diren tximistak ez direla indar handikoak eta hori kontuan izan behar dela tximistorratzak diseinatzeko tenorean.

Tximisten intentsitatea 31 kiloperekoa da, batez beste, munduan. Nafarroan tikiagoa da; batez beste, 5 eta 15 kiloperearen artean dago. Handiagoak ere badaude noski, 100 kiloperekoak. Baina %80 tarte horretakoak dira. Horrek erran nahi du gure babes sistemak horre-

tara egon behar dutela egokiturik. Nafarroan 100 kiloperekoak babesa izateak ez du zentzu handirik. Ez dugu zertan aztoratu; ongi babesturik gaude. Baina hobetu nahi badugu eta sortzen diren arazoak eragotzi, babes sistema egokiak paratu behar ditugu. Tximistorratzak zenbaki batetik goiti deskargak hartzeko diseinatzeko dira. Beheitikoak ez dituzte hartzen eta instalazioetan sartzen dira, itzaladiak ekartzen dituzte eta etxe tresnak hondatzen dituzte. Tximistorratzak Nafarroako tximista gehienek ezaugarrietara egokitu behar dira babes sistema ona izateko.

## ■ Tesiak ideien munduan mugitzen dira anitzetan. Zurea nolakoa da?

Tesi praktikoa egin nahi izan dugu. Estudio erreala da. Izan ere, industri ingeniariari gero gure tesiak aplikatzea gustatzen zaigu; hau da, erabil daitezela, izan daitezela beste lan batzuen abiapuntu. Eta tximisten mundu honetan, babes sistemak diseinatzeko beharrezkoak dira nire bezalako estudioak.

rra. Eragina du beste askoren artean. Baina altueragatik soilik ez dago tximista gehiago».

## Lur azalaren erresistibitatea

Tximisten ezaugarriak eta kopurua detekzio sistema garesti batzuen bidez hartzen da. Eta sistema hauek ez baditugu, nola jakin dezakegu nolakoak diren gure tximistak?

Aguado irakasleak ematen du erantzuna: «Erresistibitateak erraten digu lur azala ona ala txarra den ikuspegi elektrikoetik begiratu ta, hau da, eroalea edo isolatzailea den». Adibidez, haitza isolatzailea da erabat.


«Batetik, ikusi dugu deskargen kopurua eta lur azaleko erresistibitatea alderantziz proportzionalak direla. Lur azala isolatzailea bada, tximista guti dago; eta eroalea bada, tximista anitz dago. Bestetik, intentsitatea eta erresistibitatearen arteko harremana finkatu dugu. Lur azal oso isolatzaileetan tximistak anitzez bortitzagoak dira. Adibidez, Urbasa aldean, —haitz asko dago—, tximistak gutiago dira kopuruz, baina oso indartsuak dira. Hor dago Nafarroako deskarga handiena jasaten duen aldea. Eta erresistibitate gutiko aldeetan, Tuterako inguruak, tximista gehiago dago, baina askoz ere tikiagoak dira».

## Tximistak har ez zaitzan

Nafarroako tximistorratzek tximisten ezaugarrietara egokitu beharko luketela uste du Aguadok. Baina berak ez du babes sistemarik eskaintzen. Bere datuak babes sistemak diseinatzeko lehen urratsa dira. Tximistorratz bat ez dutenei zenbait aholku ematen ausartzen da: «Etxean bazau, elektrogailuen entxufea atera, leihoak itxi eta ez telefonotik hitz egin. Etxetik kanpo bazau, etzan lurrean fetuarena egin eta alden du objektu metalikoetatik; ez zuhaitz baten azpian jarri; multzoa bazarete, sakabanatu; eta uretatik atera trumoiak entzun bezain pronto».

Asier Azpilikueta

## Oinaztarriak Nafarroan





## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Hiru zientziagizon

Ikastolen hasieretan testu liburuen urritasuna arazo larria genuen, baina arazo hau are larriagotzen zen zientzien inguruko arloak jorratzen zituzten liburuekin; hona hemen afera honi irtenbidea ematen ahalegindu ziren hiru euskal idazleren berri laburra.



## Jauregi

Luziano Jauregi Uribarren Aramaio Etxaguenen jaio zen 1895eko maiatzaren 27an. Karmeldarra Larrean sartu zen 1913an Gabriel izen berria hartuz; euskal letretan ezagunagoa gertatu dena, bestalde. Lehenbiziko meza Gasteizen eman zuen 1922an, eta handik atera gabe, 1936ra arte fisika eta kimikako irakasle jardun zuen. Gerratearen ondoan Larrean geratu zen, eta hantxe hil zen oraino gazte zela, 1945eko otsailaren 2an. Karmeldarra izanik, *Karmengo Argia* aldizkarian hasi zen idazten 1931z geroz G. Aramaio ezizenez agertzen zen *Izarren goraberak* saila. Edozein modutan ere, Gabriel Jauregiren lanik ezagunenak *Pisia* eta *Kimia* ditugu. Lehenbizikoa Bermeoko Gaubekan atera zen 1935ean, 300 orrialdeko liburutzarra, argazki eta marrazki ugariz horniturik, bi atal nagusitan zegoen banaturik; gorputzen mekanika eta kulunkaen mekanika, alegia. Bigarrena hurrengo urtean atera zen toki berean, zertxobait arinagoa zen tamaina aldetik bederik ere, ez, ordea, mamiaren aldetik, liburu hau hiru ataletan banandurik dago: «Lelengoan kimi-yazokune guztien zuster ta oñariak dakar, ta guztien kimia deritxo; bigarrenen gorputz ekar edo bakar eta alkartuen kimi-yazokunek aztertzen dauz, ta metal-kimia deritxo; irugarrenean ikazgaia sartzen dan gorputz guztiak darabiltz, ta arlo oneri ikazgai-kimia deritxo». Oraino beste liburu bat utzi zigun Jauregi irakasleak argitara ateratzeko prest; *Jakin-dia* izenburukoa, hain zuzen ere, natur zientzien ingurukoa zena; alabaina, 36ko gerratea zela bide, egun galdurik dago honen eskuizkribua.

## Larrañaga

Gilermo Larrañaga Azpiazu josulaguna Azkoitian jaio zen 1905eko apirilaren 10ean. Loiola, Oña eta Marneffen ikasi ostean, Caracas, Indautxu, Las Palmas eta Tuteran ibili zen zientzietako irakasle, azken hiri horretan zendu zitzaigularik 1978an. Bere lehenbiziko euskal lanak Caracasen zegoela hasi zen argitara ematen Azkoiti ezizen, Montevideon Zaitetik zuzentzen zuen *Euzko Gogoa* aldizkari sonatuan. Alde bate-tik euskarara eginiko itzulpenak agerrarazi zituen, *Milla ta bat gauetako ipuiak* (1956-1958) edota *Izkuntza ta abenda*, *Arthur Kanpionena euskeraz* (1959), eta bestaldekik jatorrizko testuak ere eman zituen argitara, hala nola *Venezuelako matxinadak XVIII gizaldian* (1956), *Antxieta'tar Jose Brasileko mixiolaria* (1957), *Juan de Lakosa* (1958) edota *Futbola* (1959).

Guztiarekin ere Larrañagaren lanik sendoenak zientzien inguruan taxutu zituenak izan ziren. Tuteran zegoela, 1975ean hain zuzen ere, *Landare jakintza: botanika izenburuko lana eman zioten argitara* Gasteizen Kardaberaz Bazkunakoek haien bildumaren zortzigarren zenbakiarekin. Ez zen orduan idatzirikoa lana ordea, bada bost urte lehentxeago, 1970ean, beraz,

mila dolarreko Andima saria eman baitzion Caracasko Euskeraren Lagunen Alkartasunak lan horrengatik. Botanika ez ezik, zientzien inguruko beste gai asko ere xehatu zizkigun azkoitiar honek, *Ludi jakintza*, *Kristal jakintza* edota *Mineral jakintza*, oraindik ere Euskaltzaindiaren artxiboan argitaragabe gorderik dirautenak.

## Egia

Luis Egia Errezola Tolosan jaio zen 1917ko abenduaren 27an. Apez sekularra, teologia Saturraran, Logroño eta Gasteizen egin zuen; eta meza berria Tolosan bertan eman zuen, 1943an. Apez ibilbideari Bizkaiko Mendizelain eman zion hasiera; ondoren, Zumarragara joan zen; alabaina, 1947an Euskal Herritik ateraz, Sevilla, Ekuador, Kolonbia, Panama, El Salvador, Peru eta Argentinan ibili zen harik eta 1969an apez laguntzaile moduan Tolosara itzuli zen arte, non 1984ko abenduaren 26an zendu zen. Lan ugariaren egilea, bere liburu gehienak eliz gaien edo zientzien ingurukoak ditugu. Argitara eman zuen lehenbiziko liburua *Oraingo aste santua* izan zen (Arantzazu, 1957), zeinak bi edizio izan zituen. Nolanahi ere, guri interesatzen zaizkigun lanak matematikaren inguruan taxutu zituenak dira. *Neurritzia* izenburukoa Kardaberaz Bilduman atera zen 1972an Gasteizen, Caracasko Andima Ibiñagabeitia saria jaso ostean aurreko urtean. Lan horren bigarren aldiera idatzi zuen geroago, haurrentzako moldatua, *Neurritzi txikia* izenburukoa, eta *Ume txiki-entzako soinketa* ere eman zuen argitara haurrentzako, 1972an; hori ere Kardaberaz Bildumaren barruan. *Aljebra* izenburuko libururekin Andima Ibiñagabeitia saria erdietsi zuen bigarrenez 1974an.



## etorri ahalean

Patziku Perurena



## Katilua festetan

**B**ERRIKASI NAHIA: «Aktore bati aurpegia hala edo nola ipin dezala esatea, ergelkeria iruditzen zait. Behin, Jeanne Moreauk, xurrupiti bat egin behar zuen katilutik, deus ez besterik, txorakeria horixe; ba 'nola hartu behar dut katilua?' egin zidan galde. Hara!... Nahi zuen bezala hartzeko esan nion purrustian. Harropuxkeria txoro batek jotzen ditu, katilua hartu eta kafe xurrupiti bat egitea beren bizian egin duten gauzarik haundiena balitz bezala». Buñuelen pasarte hori, zinez, antzerkiaz, teleaz eta orohar munduko «ikuskizun trastezendenteez» oraindik inork egin gabeko tesi eder baterako amu izan liteke. Baina ez uste, nere aldetik behintzat, Jeanne baino batere hobeki aterako litzakenik Buñuel, pasarte horretatik. Ene gogaide bakaretako bati behiala aditua dator kit burura.

ERAKUTSI NAHIA: «Filisteo eredugarria betiere, poeten, zinegileen, artisten, humanisten eta kulturaren aldeko familia sonatu bateko senide izan ohi da. Eta kontatzen du, behin batean, Julio 'Indio' Perezek gutun bat nola erakutsi zion, esanez, arrunt maitemindua daukan aktorea famatu bate-na zela:

- Ikustak... ezkontzeko eskatzen zidak-. Filisteoak gutuna ikusi, eta inbidiz akabatzen:

- Letramodu txukuna, gero-re!-. Indioak ez daki zer den ez letra txukuna ez zakarra, baina, barren barren senez bai, gutuna zinezko duela. Gutuna patrikeran gorde, ttente jarri, eta serio demonio:

- Ezkerrez eskribitu baitit, bere burua ez konprometitzeko».

Ateraldia mundiala da; baina gertakaria kontatzen duen filisteoak, bere mundutasun fina erakutsi nahi eta «indio gizajoak» zakur ametsak egiten eta sekulako tiroak botatzen zituela frogatu nahi

itsuan, ez dio arrastorik ere hartzen. Ez eta entenditu ere ez du egiten, xipotx eta narratz halakoak, aktorek onena izan litekeela batere eskolagabea edo jende letratu-gabeak idatz litzakeela amodio azalpenik ederrenak edo poemarik harrigarrienak.

DESIKASI NAHIA: Mundua bezain zaharra den gai honetan, jerarkian behetik goiti hastea gustatzen zait beti. Aurrena barkatzen dudana jende (publiko?, biktima?) inozentea izaten da; publikoa, biktima; hurrena artista; betiko erdipurdi hori; eta azkenekotz artista gidatu nahi izaten duen filisteoak; honek jainko dela uste izaten du; eta denetan mixerableena izaten da beti, honetan ez baitut santa sekulan ezagutu salbuespenik. Ez da zinera joan beharrik; edozein herri festa aproposa da arrunt, joera honetaz konturatzeko. Oraintzeko *Amabirjinak* esate bateko.

Zenbat kostatzen den, moteillak «sentzillo» izatea! Jende askok besterik uste izanarren, karrerarik zailena eta osasungarriena gizakiarentzat. Nere gutizia ez da zuzendari edo artista izatea, baizik «sentzillotasunean» masterra ateratzea neure buruarekiko karreran. Honetan, hasiera izaten da zailena; zeure aldeko bideak ongi bereizten ikastea. Izanez ere, gizarte guzia, zeure aldeko dituzun uste osoan zeure kontrako bideak hartzeko mila martingala poxoltuz josia baitago.

Ez. Inoiz ez da erraza izan «sentzillo» izatea, baina, gaurregun inoiz baino zailago. Gizarte osoak kontrako bidea baitarama. Herriko festetan ohartzen naiz: jendeak ez daki katilua ttar bat nola hartu ere; xurrupiti egitekoan gero eta gehiago konplikitzen da. Bai, mozkor gorotz eginga dagoenak ere, txukun txukun hartu nahi izaten ditu. Okerrena, halare: modernaje gidari guzia seko sinistua dagoela «libertinaje sano» baterantz goazela.

## Ziria

• Motxorrosolo •

## Logika

**T**alka egin beharrean bat egin dute. Zaharran aski ezaguna duguna orokortu nahi dute. Logikak balioa ez duen honetan, Aizpun zenak iragarritakoa betetzen ari da. Aferak bere horretan dirauen bitartean, aldapa gero eta makurragoa.



# Jose Mari Belasko

LA TAFALLESA MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIA

## «Musikarik gabeko bestak ez dira deus»

**Nafarroa bestetako zurrunbiloan murgildurik dago. Musikarik gabeko bestarik ez da. Musika hori disko batetik atera daiteke edo musika banda batek egin dezake. Tafallan, La Tafallesa bandak du egunotan karrikak alaitzeko ardura.**

**J**OSE MARI BELASKOK IA 30 urte eman ditu La Tafallesan, eta orain, bere zuzendaritzapean, disko konpaktu batean jaso dituzte euren kantak.

### ■ Zer biltzen du disko konpaktuak?

Tafallako jaietako kantak biltzen ditu: Salbeko *Viva Tafalla* izenekoa (Antonio Feijoo zuzendari ohiaiena), *Alegría de las Peñas* (Menendez tafallarrarena), biribilketak, martxak, jotak, pasodobleak... Jaietan jo ohi duguna.

### ■ Nondik sortu zen diskoa grabatzeko ideia?

Iaz, jañak bukatu zirelarik, Tafallan bizi ez diren hainbat tafallarrek galdetu zidaten ea lan grabaturik genuen. Baten bat badago: 70eko urteetan bi single grabatu zituzten, eta 80ko urteetan zinta bat. Eta orain, ia XXI. mendean gaudela, disko konpaktua grabatu behar zela ikusi nuen. Edadetu askok zinta ez atera izana aurpegiratu didate. Diskoa Etxeondo disketxeak ekoitzi du. Mila disko atera dituzte. Eta nik erran nien zintak egin nahi bazituzten beren kontu zela.

### ■ Diskoan La Tafallesako lan guzia jaso da?

Ez, soilik jaietako musika jasotzen du. Bandak ez du soilik mota horretako musika jotzen. Nik hasieran *Gure banda jaietan* izenburua paratu nahi izan nion diskoari, baina azkenean *La Tafallesa musika banda* izenburua jarri diote.

### ■ Bestetan lan handia omen duzue.

Bai, lehen hiru egunetan bizpahiru aldiz jo behar dugu egunero. Gero zezenketetan jotzen dugu soilik. Hainbeste

urte eman ditut bandan horrela bizi izaten ditudala jaiak. Bandan jotzen ez badut, bestak ez dira gauza bera niretako. Behin, jaietako egun batean ez genuen jo behar izan eta zeharo aspertu nintzen.

### ■ Zer ematen dio banda batek herriko beste?

Alaitasuna, dibertsioa... Musikarik gabeko bestak ez dira deus. Eta musika hori zuzenean entzun behar da, kalean; jaiaren erdian, diskoak baina zuzeneko musika nahiago dut.

### ■ Zein da La Tafallesaren historia?

Musika banda 1851n sortu zen, Felipe Gorritiren eskutik. Eta orain arte iraun du. Lehen Udalarrena zen, orain ez. Hitzarmena dugu Udalarrekin. Duela 101 urte Lurdesen urrezko domina irabazi zuen La Tafallesak; eta 1976an TVE-n izan zen Jose Maria Inigoren *Directísimo* programan. Orduan garrantzi handikoa zen hori. Bestetik, urtero Iruñera joaten gara sanferminetako igande batean dianak eta kontzertua jotzera. Tafallatik kanpora ez ditugu kontzertu asko egiten, ia herri guzietan dagoelako banda.

### ■ Zuk iazko martxoan hartu zenuen bandako batuta.

Bai, hainbat istilu izan ziren bandan, eta ni izan nintzen aurkezten bakarra. Nik pentsatzen nuen bandako norbaitek hartu behar zuela ardura hori, ongi eza-

«Lehen, La Tafallesak igandero eta jaiero kontzertua eskaintzen zuen herriko plazan. Polita da, bai, igandero herrian musika egotea, baina ezinezkoa da. Orain bi asteen behin jotzen dugu. Kalitatea lortu behar da»

gutu behar zuen banda. Klarinete nagusi bezala bandan 28 urte eginak nituen ordu-rako. Banda bat hartzeko bizi behar duzu, bertatik edan. Kanpoko batek ezin zuen zuzendaritza hartu. Musika nire ogibidea da, eta

aukera ona iruditut zitzaidan. Eta gustura nago.

### ■ Aldaketarik egin duzu?


Musika ikusteko nire modua eta aurreko zuzendarirena ezberdinak dira. Lehen, La Tafallesak igandero eta jaiero kontzertua eskaintzen zuen herriko plazan. Baina asteen bi entsegu eta kontzertu bat egitea niretako ezinezkoa zen. Beti errepertorio berdina egiten genuen. Aldaketa guti egin zitekeen. Orain bi asteen behin jotzen dugu. Gazteek egin nahi genuen aldaketa bat zen hori. Aldaketa handia izan da. Baina hainbeste kontzerturekin itotzen ginen. Tirabirak izan ziren jende asko igandero plazara joaten ohituta zegoelako, herritarrak zein musikariak. Baina nik banekien zertan ari nintzen. Polita da, bai, igandero herrian musika egotea, baina ezinezkoa da. Kalitatea

nahi nuen. Musikari gazteek eskatzen dugu, ikusten baitugu bandak soinu polita egin dezakeela eta egin egiten du.

### ■ Zer moduzkoa da entseatzeko lokala?

Hori da nire kexa nagusia. Ez zait gustatzen. Oso estua da, ttikia, neguan oso hotza, eta udan oso beroa. Ezin da entseatu. Gainera, Tafallan ez dugu lekuri kontzertuak emateko. Ona litzateke Tafallan arte eszenikoen etxe bat izatea. Bestetik, nire beste arazo bat musikarien agertzea da. Gazte asko dago bandan, eta azterketa garaietan desagertzen dira. Bandan 60 musikari gara, eta normalean 20 bat falta dira. Hala ere, normala iruditzen zait, ez garrelako banda profesionala.

→ Asier Azpilikueta



● INAKI VERGARA

### soslaia

Jose Mari Belasko Janariz duela 38 urte jaio zen, Tafallan. La Tafallesa musika bandan ia 30 urte eman ditu klarinetea jotzen, eta iazko martxoetik bandako zuzendaria da. Gainera, Tafallako Musika Eskolako irakaslea ere bada. Ezkondurik dago, eta hiru seme-alaba ditu, bost hilabete, 3 urte eta 8 urtekoak.

La Tafallesak disko konpaktua atera berri du bestetako hamazazpi kanta bilduz. Mila ale atera eta dagoeneko 300 saldu dituzte, 2.400 pezetan bakoitza. Diskoa ekainean grabatu zuten, Tafallako Kultur Etxean. Arion estudioetan grabatzeko aukera zuten, baina Belaskori sobera zaila iruditut zitzaien haraino 60 lagun eramatea.

Belaskok dioenez, atera berri duten diskoan badira kanta batzuk gazte denborako oroitzapenak dakarzkienak. «Aita duela zenbait urte hil zitzaidan», erran du. «Bestak oso gogoko zituen. Salbea asko gustatzen zitzaien eta entzuten dudan bakoitzean oilo ipurdia jartzen zait».





## Nafar Kronika

Martxelo Sotes

### Igerilekuak miran?

**D**uela astebete Atarrabiako udal igeritokietan pertsona batzuek lau pintura pote bota zituzten bertako bi igeritokietan. Bizitzan ere gertatu ohi den gisan, nonbait, kalte handiena igeritoki ertainean izan zen; igeritoki olimpikoak, ordea, ez zuen hainbesteko kalterik izan. Eraso-tzaileek hiru kolore hautatu zituzten beren egintzarako: berdea, urdina eta horia. Oraindik ere CESIDekoak lanean ari dira jo eta fuego, ekintza polikromatikoko horren azpian egon daitekeen bigarren irakurketaren bat azalerazi nahian.

Badaezpada, Cordovillako Inpartzialak berehala islatu zuen berri tamalgari hori honako lerroburu honetan: *EHTik hurbileko ezezagun talde batek Atarrabiako udal igeritokiak baliogabetu ditu.*

Hara, ezezagunak badira nolatan jakin daiteke zein alderdiren alde bozkatzuten duten? Hau da, hau, kazetari trebezia. Rappelek ez luke horren azkar asmatuko.

Eta ikerketa zientifikoa balitz?... Ba horixe, 4 kilogramo margo 7.000 litro kubo zikintzeko gauza dela frogatu ahal izan zuten. Kontua da, abuztuko ostiral eguzkitsu eta beroa koloreztatzeaz gain, bost mila bazkide igeri egiteko aukerarik gabe utzi zituztela.

Eta artearen azkeneko tendentzia edo joera abangoardista gauzatu nahian ibiliko balira?... Tamalez jakin badakigu artista baten hastapenak benetan latzak izaten direla normalean. Ikuslea haren performance-ekin ohitzen den arte bederen hala izaten da. Azken finean, artista onen maisulanak ez dira behar bezala ulertzen. Hau pena.

Hau pena diogu: izan ere, aipatutako 5.000 bezeroek —present eduki udal igeritokien inguruan ari garela— artisten ama, aita eta gainontzeko senitartekoak ekarriko baitzituzten gogora haien maisulana ikusitakoan.

Ikerlariak, artistak, delitugileak edo herriko txantxagileak besterik ez diren ezin dugu jakin; ez baikara Cordovillakoak bezain jakitun (edo jakintsu?). Pentsatzekoa da ganberrokeriaren ondoren ase gelditu direla margolariak, eta uda amaitu bitartean hortxe dira igeritokietako ur garbi klorodunak denon aisialdirako.

## gure aukerak

### MUSIKA

► **Tafalla:** Gaur, ostiralarekin, Berri Txarrak, Joxe Ripiau eta Cuerno del Chivo taldeek txosnen gunean joko dute, gaueko hamabietatik aurrera.

► **Erronkari:** Gaiareren inguruko jardunaldiak zikloaren baitan, bihar, 13:00etan eta 18:30ean, Fernando Asensio tenorrek kontzertua eskainiko du, Miguel Sesma pianoan lagun duela, Gaiarre museoan.

► **Lerate:** Bihar, 23:00etan, Allozko urtegi ondoan Los Padriños taldeak kontzertua eskainiko du.

► **Lizaso:** Igandean, Mira naturaren erdian zikloaren baitan, Syrinx laukoteak kontzertua emanen du Orgiko hariztian, 12:30ean eta 18:00etan.

### BERTSOLARIAK

► **Gorriti:** Ostegunean Kaxianori eta Trakets taldeari omenaldia egingen diete Peñagari-kano eta Estitxu Arozenaren laguntzaz. Frontoian izanen da, 12:00etan.

### DANTZARIAK

► **Elizondo:** Bihar, 20:00etan, dantza ikuskizuna eskainiko du Amairu dantza taldeak, herriko plazan.

► **Elizondo:** Bihar, 22:00etan, Ortzadar euskal folklore taldeak dantza emanaldia eskainiko du pilotalekuan.

► **Lekunberri:** Bihar, 22:00etan, Muthiko Alaiak taldeak dantza emanaldia eskainiko du pilotalekuan.

► **Artaxona:** Igandean, Rocamador dantza taldea ariko da herriko plazan, 13:30ean.

### ANTZERKIA

► **Atarrabia:** Pepsicolen taldeak Marremango kale ikuskizuna eskainiko du gaur, 22:15ean, Antso VI.a Jakitunaren plazan.

### ZINEMA

► **Oitz:** Igandean, 22:00etan, Angus filma euskaraz pantailaratu dute plazan.

### ERAKUSKETAK

► **Ziga:** Jesus Montes margo erakusketa dago ikusgai Zi-

gaurre auzoko Karakotxean, irailaren 3a arte, 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara.

### LEHIAKETAK

► **Atarrabia:** Abuztuaren 31n akitzen da herriko jaietarako kartel lehiaketako lanak aurkezteko epea. Kartelak, Kultur Etxean aurkeztu behar dira 10:00etatik 14:00etara. Kartelaren gaia, estiloa eta teknika librea da. Kartelak 70 cm.ko altuera eta 50 cm.ko zabalera izan beharko du, eta honako testua idatzita: Villa-

va-Atarrabia. Fiestas Patronales 2000-Herriko Jaiak 2000. Herriko armaria ere agertu behar da.

### BESTELAKOAK

► **Erriberri:** Dastaketa ikastaroa egingen dute gaur 20:00etan Nafarroako Ardoaren Kofradiaren egoitzan (Rúa Mayor, 4). Lekua gordetzeko deitu 948-210347 telefonora.

► **Zangoza:** Gaur Erdi Aroko azken afaria egingen dute Karmengo klaustroan. Lekua hartzeko deitu lehenbailehen 948-430497 telefonora.

• INAKI VERGARA



### Txunda ta txunda

Burlata, Tafalla, Murchante, Buñuel, Lerin, Urantzia, Goizueta, Irunberri... Nafarroa jaietan dagoela erran beharra dago? Aurreko asteko gertakariak Nafarroa aztoratu zuten. Txunda, txunda, ta txunda txunda txunda, ta ta txun ta txun, ta txunda txunda txun... Aurreko guziak ahanzteko bezainbertze ardorik ez da Nafarroan. Eskerrak kanpoko garagardo eta likoreei.

Jaiak errealitatea desitxuratzen dute. Horixe dio tronboiak akorde baxu baina alaietan: bon bobon boom: alaitasuna, dibertsioa, parranda, besta. «Jaiak bai, borroka ere bai», ala «Jaiak bai, (zuen) politika ez»? Tronboiaren plateran Tafallako udaletxea ageri da, komikien gisara, perspektiba galduta, marraz bihurtune bilakatuta. Errealitateak bestak desitxuratuko ote ditu?